PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/17

# Batzar Nagusiek hegazti fringilidoak harrapatzeko epealdia zabaltzeko eskatu deutsie Foru Aldundiari, hegaztiak itxian hazteko

Bizkaiko Batzar nagusiek, Hegazti fringilidoak bizirik harrapetea baimentzeko aukerea "barriro aztertzea" eskatu deutsie Aldundiari, hegaztiak itxian hazteko. Bizkaiko Batzar Nagusietako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako batzordeak Talde Popularraren arauz besteko proposamen bat onartu dau, eta bertan eskaria egiten jako Foru Aldundiari, hegazti horreek bizirik harrapetea baimentzeko, "2018. urtera arte, hori barru, Estaduko eta Europako erregulazinoetan aurreikusten dan moduan".

Eduardo Andrés PPko batzordekideak azaldu dauenez, eskari hori alkarte ornitologikoek eurek egin dabe, Bizkaiko Batzarretako Eskaeretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzorde batean, talde horreek datozan urteetarako harrapaketa epealdia "preminaz" zabaltzea eskatu ebelako, 2016. urte honetatik bertatik hasita, espezie horreen harrapaketea irailean eta urrian egiten dalako.

Azkenean, Bizkaiko Batzarrek onartu egin dabe proposamen popularra, Euzko Abertzaleak taldearen aldeko botoagaz. EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak kontrako botoa emon dabe, eta ordezkari sozialistak abstenidu egin dira. Azken hiru talde horreek euren "zalantzak" erakutsi ditue, neurria kanpaina honetan martxan jarteari jagokonez, harrapetako epealdi egokia amaitzear dagolako. "Ez dago horrenbesteko preminarik, urriaren amaieran gagoz eta", esan dau Podemos Bizkaia taldeko Josean Elgezabalek.

## ISURKETAK URDAIBAIN

Beste alde batetik, Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatu andrea batzordearen aurrera etorri da, EH Bilduk eskatuta, abuztuaren bukaeran Oka errekan, Portuondo (Mundaka) ondoan, ustez izandako ur zikinen isurketaren gaineko informazinoa emoteko.

David Lopategi EH Bilduko batzordekideak esan dauenez, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba barruan dagon inguru horretan, "3.500 udatiar" datozan garaiagaz bat etorriz, ur zikinen isurketak "eten barik" gertatzen dirala salatu dabe bertako biztanleek. Bere berbetan, udan errepiketan dan eta, beharbada jatorria pozu septiko batean izan daikean foku "puntual" hori izan zan "hondartzainek" bainetan ari ziran pertsonei "gehienez be 10 minutuko bainu laburrak" hartzeko aholkua emon izanaren errazoia.

Foru Diputatuak, uraren kalidadearen arloan Aldundiak eskumenik ez dauela adierazo ostean, inguru horretan ur zikinen ezelango isurketaren "barririk ez daukala" azpimarratu dau, bere egunean Eusko Jaurlaritzak emon eban informazinoan oinarrituta. Ohikoak diran kalidade kontrolen ostean, Osasun sailak arazoren bat aurkitu eban uraren kalidadean. Diputatu andreak jakinarazo dauenez, Gasteizko Jaurlaritzaren eretxiz, abuztuaren 29an aztertu zan uraren

kalidade mailea "ez zan behar bestekoa" osasunaren ikuspuntutik, baina bainetako "ona" zala ulertu zan. Unzuetak esan dauenez, Aldundiak ez eutsien ezelango agindurik emon hareatzetako beharginei bainetea debeketako edo bainuaren iraupena laburtzea agintzeko.

Aldundiko arduradunak azpimarratu dauenez, Aldundia beti dago Eusko Jaurlaritzagaz hartu-emonetan, Bizkaiko hareatzetako erabiltzaileei emon beharreko mezuak emoteko, Osasun Sailak egiten dituan osasun kontrolak kontuan izanda. Unzuetak adierazo dauenez, une honetan egiten ari dan eta Urdaibaiko itsasadarraren ezkerraldea hartzen dauen kolektore orokorraren eraikuntzak etorkizunean gertatu daitekezan isurketa gertakariak saihestea gura leuke.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
17/10/2016

# Las Juntas Generales instan a la Diputación a abrir ya el periodo de captura para la cría de aves fringílidas

Las Juntas Generales de Bizkaia han instado hoy a la Diputación a "reconsiderar" la prohibición actual que pesa en Bizkaia sobre la captura de aves fringílidas para su cría en cautividad. La comisión de Sostenibilidad y Medio Natural ha aprobado una proposición no de norma del grupo Popular Vizcaíno en la que se solicita a la Institución foral que permita la captura de estos pájaros "hasta el año 2018 inclusive, tal y como se contempla en las regulaciones estatales y europeas".

El apoderado del PP Eduardo Andrés ha explicado que esta petición procede de las propias sociedades ornitológicas que ya solicitaron en una pasada comisión de Relaciones y Peticiones de la Ciudadanía en la Cámara vizcaina la apertura de un nuevo periodo de capturas de forma "urgente" para los próximos años, empezando por este año 2016 dado que la temporada de captura de estas especies se produce durante los meses de septiembre y octubre.

La Cámara vizcaína ha aprobado finalmente la propuesta popular con el apoyo del grupo Nacionalistas Vascos. EH Bildu y Podemos Bizkaia han votado en contra, mientras que los representantes socialistas se han abstenido. Estos tres últimos grupos han mostrado sus "dudas" a que la medida tenga que ser efectiva durante esta campaña puesto que el periodo idóneo está a punto de concluir. "No hay tanta urgencia, ya que estamos a finales de octubre", ha señalado Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia.

## VERTIDOS EN URDAIBAI

Por otro lado, la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha comparecido en la comisión para informar, a petición de EH Bildu, de un supuesto vertido de aguas fecales ocurrido a finales de agosto en el río Oka al lado de Portuondo (Mundaka).

El apoderado de EH Bildu, David Lopategi, ha explicado que los vecinos y vecinas vienen denunciando que en esta zona, incluida en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, se producen episodios "continuados" de vertidos fecales en periodo estival coincidiendo con la llegada de "unos 3.500 veraneantes". Según él, este foco "puntual" que se repite en verano, y que pudiera tener su origen en un pozo séptico, fue el detonante para que los "hondartzainas" aconsejaran a los bañistas realizar "baños cortos de 10 minutos".

La diputada foral, tras indicar que la Diputación no es competente en materia de calidad de agua, ha subrayado "no tener constancia" de que se produjera ningún vertido fecal en la zona en base a la información que le fue facilitada en su día por el Gobierno vasco. Tras los habituales controles de calidad, el departamento de Sanidad detectó una anomalía en la calidad del agua. Según ha informado la diputada, el Ejecutivo de Gasteiz llegó a calificar las aguas analizadas el 29 de agosto de "insuficientes" desde el punto de vista sanitario, si bien la condición para el baño fue considerada de "buena". Unzueta ha negado que la Diputación diera orden alguna al personal de las playas de transmitir una prohibición total o parcial del baño.

La responsable foral ha recalcado que la Diputación está en permanente contacto con el Gobierno vasco para transmitir los mensajes necesarios a los usuarios de las calas vizcaínas en función de los controles sanitarios que hace el departamento de Sanidad. Unzueta ha deseado que la construcción actual del colector general que recorre la margen izquierda de la ría de Urdaibai pueda evitar futuros episodios de vertidos.